



2009-2010 IKASTURTERAKO BATXILERGOKO HERRI IKASTETXEETAN IKASLEAK ONARTZEKO ARAUAK

1.- Ikasleen onarpena hurrengo xedapenetan ezarritakoaren arabera egingo da:

- Martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua. (2008ko martxoaren 6ko EHAAn)
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2009ko martxoaren 17ko Agindua, matrikulazio-prozedura eta egutegia arautzen dituen. (2009ko apirilaren 3ko EHAAn)

2.- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak, Plangintzarako Lurralde Batzordeak gaia aldeztu ondoren, zehaztuko du **ikastetxe publikoen lerro eta hizkuntza ereduaren eskaintza**. Ikastetxeek eskaintzen ez duten ereduarentzako eskaerak onartu ahal izango dituzte. Ikastetxeak eskaintzen ez dituen ereduak bakarrik eskatzen direnean, ereduak ikastetxean ez dagoela jakinaraziko zaio familiari eta, ondorioz, eskaera ez da barematuko, ereduak aldatu eta eskaera beste ikastetxe batean egiteko aukera izan dezaten. Hori gertatu arren ez badute eskaera aldatu nahi, ikastetxeak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du.

3.- Ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen eragin-eremuak zehazteko asmoz, horretarako batzordeak sortuko dira eta haien eragin-eremua zein den nahiko lehenago jakinaraziko zaie ikastetxeei, eskaerak aginduak ezarritako epeetan barematu ahal izateko.

4.- Ratioak

2009-2010 ikasturterako gehienezko ratioa 30 ikasle taldeko izango da.

5.- Batxilergoko 1. kurtsoan ez da 17 ikasle baino gutxiagoko gelarik onartuko, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak baimendu dituen aparteko kasuak izan ezik, Plangintzarako Lurralde Batzordeak gaia aldeztu ondoren.

Aurreko ikasturtearekin alderatuta taldeen kopurua handituz gero, Hezkuntza Ordezkaritzaren baimena beharko da.

Ezarritako gutxienezko kopurura ez iristeagatik ikasle guztiak onartzerik ez dagoen kasuetan, Ordezkaritzak hurbilen dagoen ikastetxera bideratuko ditu ikasle horiek.



- 6.- Ezin izango dira ikasle berriak Batxilergoko 2. kurtsoan matrikulatu, horrek taldearen bikoizketa badakar. Horregatik, errepikatzailen aurreikuspenak kontuan hartu beharko dira, kurtso horietan matrikulatzeko.

Gela bikoiztea dakarren ikasle errepikatzailen matrikulazioa Ikastetxeen Lurralde Burutzari jakinarazi beharko zaio. Jakinarazpena nahiko lehenago egin beharko da, ikastetxea behar bezala planifikatu ahal izateko.

- 7.- Lurralde Ordezkaritzako Pedagogi Berrikuntzarako Burutzak zentralizatuko ditu **hezkuntza-premia berezietako ikasleak onartzeko** eskaerak. Eskolatzeko tokia eta baldintzak erabakiko ditu, ikasleen ezaugarriak eta ikastetxeetan dauden baliabideak kontuan hartuta.

- 8.- Hizkuntz ereduz aldatzea.

Ikastetxearen hizkuntz eredua aldatzea baimentzeko, Euskal Eskola Publikoaren Legeak xedatzen duena aplikatuko da. Lege honek 21. artikuluan hau zehazten du: "Hezkuntza Administrazioak eman ahal izango du hezkuntza-maila batetik bestera pasatzean hizkuntz eredua aldatzeko baimena, betiere gurasoen eskaera nahikoa baldin badago eta plangintzak horretarako aukera ematen badu.

Aipatutako 21. artikulua horretan xedatutakotik ondoriozta daitekeenez, hezkuntza-maila bakoitzaren hasieran baimendu behar dira ikastetxeak eskainitako hizkuntz ereduen aldaketak (Batxilergoko 1.maila).

Laster ebazpen bat emango da arautzeko nola aldatu ikasleen eredua eta nola eman izena ikasturtea hasi eta gero.

- 9.- Modalitateko eta aukerako irakasgaiak.

Eskabideak onartzeko epe barruan, Ikastetxeak ikasle berriei eskainitako modalitateko eta aukerako irakasgaien berri emango die, egun ikastetxean dagoen irakasleriaren espezialitatea kontutan hartuta.

Era berean, jada matrikulatuta dauden ikasleen aukerak bilduko dira, irakasgaiak eta taldeak zehazteko, modalitateko eta aukerako irakasgai bakoitzean.

Arau orokor gisa, modalitate bateko edo aukerako irakasgaiak emateko, irakasgaiako 15 ikasle beharko dira gutxienez.



Hizkuntz eredu zehatz batean talde bakarra dagoenean eta, hizkuntza dela eta, ezinezko denean bi hizkuntz ereduak ikasleak elkartu, eskatzen den gutxieneko taldea 10 ikaslekoa izango da eredu horretan. Ondorioz, modalitate bat baino gehiagoko ikasleekin talde mistoak eratzeko, modalitate bakoitzeko 10 ikasle behar dira gutxienez.

Ikasleak onartzeko epea itxi ondoren eta behin-betiko zerrendak argitaratuta, Ikastetxeak modalitateko eta aukerako irakasgaien taldeak osatzeari ekingo dio. Modalitateko edo aukerako irakasgaien batean taldea osatzeko baldintzak betetzen ez direnean, Ikastetxeak egoera horretan dauden ikasleei irakasgaia aldatzea eskatuko die.

10.- Matrikulatzeko prozedura

10.1.- Eskaerak Lurralde Ordezkaritzek emango dituzten inprimaki ofizialetan formalizatuko dira. Ikastetxeek emango diete gurasoei aurkeztu behar dituzten egiaztagiriei buruzko informazioa, baremoaren atal desberdinak balora diezazkieten. Informazio hori idatziz helaraziko da, eskaera-orriarekin batera.

10.2.- 2009ko maiatzaren 4tik 8ra bitartekoa izango da eskaerak onartzeko epea.

10.3.- Eskaera bakoitzak ondorengo dokumentazioa izan beharko du, derrigorrean:

- Ikaslearen NANaren (AIZrena atzerritarren kasuan) kopia.
- Udalak emandako erroldatze-egiaztageria.

Ikaslea adingabekoa izanez gero, derrigorrezkoa izango da hurrengo dokumentuak aurkeztea:

- Ikaslearen eta bere gurasoen edo tutorearen familia-liburuko orrien fotokopiak.
- Ikaslearen aitaren, amaren edo legezko tutorearen NANaren (AIZrena atzerritarren kasuan) kopia.

10.4.- Eskatzaileen zerrenda:

Eskaera aurkezteko epea bukatu ondoren, maiatzaren 8an, kurtso bakoitzerako eskatzaileen zerrenda ikastetxearen iragarki-taulan emango da argitara, ikasle bakoitzaren izen-abizenarekin eta eskatutako hizkuntz ereduarekin. Zerrenda hori eta eskaini ez diren hizkuntz ereduarentako jasotako eskaerena posta elektronikoaren bidez Lurralde Ordezkaritzari bidaliko zaizkio, adierazten den helbidera, bi eguneko epean, eskaerak egiteko epeak bukatu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.



10.5.- Barematzea:

Ikastetxetik bertatik datozen ikasleek Zientziak eta Teknologia edo Giza eta Gizarte Zientziak modalitatean eskabidea aurkeztuz gero, onartutzat joko dira, eta baremoa beste ikastetxe batzuetatik datozenei aplikatuko zaie, hala behar denean eskatzaile baino toki gutxiago dagoelako. Arte modalitatearen kasuan, eskabide baino toki gutxiago badago, eskatzaile guztiei aplikatuko zaie baremoa, ikastetxetik bertatik zein beste ikastetxe batzuetatik etorri.

Eskaera kopurua eskainitako plazena baino txikiagoa baldin bada, ez dira eskaerak barematuko eta eskatzaile guztiak automatikoki onartuko dira.

Edozein Batxilergo-modalitatetan sartzeko, Arte Batxilergoan salbu, multzo batean ordenatuko dira atxikitako ikastetxeetatik datozen ikasleen eskabideak, eta beste multzo batean gainerako eskabide guztiak. Lehenengo multzoko eskabideek, betiere, lehentasuna izango dute, bigarren multzoko eskabideen aurretik. Bi multzo horietako bakoitzaren barruan, lortutako puntu-kopuruaren arabera ordenatuko dira eskabideak eta, berdinketak izanez gero, berdinketak desagiteko irizpideak aplikatuko dira, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan eta 2009ko martxoaren 17ko Aginduan xedatzen direnak.

Ikasleek ez dute baremoaren atalak egiaztatzeko dokumentaziorik aurkeztu beharko baldin eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeari atxikitako Lehen Hezkuntzako ikastetxeetatik badatoz. Ikasleoi bakar-bakarrik eskatuko zaie dokumentazio hori aurkezteko, baldin eta aurreikusten bada barematu egin behar direla.

Arte Batxilergoan sartzeko eskabide guztiak multzo bakarrean ordenatuko dira, lortutako puntu-kopuruaren arabera ordenatuko dira eskabideak eta, berdinketak izanez gero, berdinketak desagiteko irizpideak aplikatuko dira, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan eta 2009ko martxoaren 17ko Aginduan xedatzen direnak.

Aurreko irizpideak aplikatu ondoren geratzen diren berdinketak ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenaren aurrean egindako zozketa publikoen bidez ebatziko dira.

Eskaerak barematu behar dituzten ikastetxeen kasuetan, hizkuntz eredu bat baino gehiagorako eskaerak baldin badaude, zerrenda bakar batean ordenatuko dira eskatzaile guztiak, puntuazio-ordenaren arabera, eta plazak esleituko dira zerrendako ordenaren eta hizkuntz ereduaren lehentasunen arabera.



Eskaerak barematzeko, OOGk irizpide hauek erabiliko ditu:

a) Helbidearen hurbiltasuna

Ikaslea adin nagusikoa edo emantzipatuta bada, ikaslearen beraren helbidea kontutan hartuko da. Bestelako kasuetan, Kode Zibilaren arabera (154. artikulua, 40. artikuluari begira), gurasoek guraso-agintea galtzen duten kasuetan izan ezik (behar bezala egiaztatua), ondorengoetako bat izan beharko du, legez, emantzipatu gabe dauden adin txikikoen seme-alaben helbidea:

1. Guraso-agintea duten gurasoetako edozeinena.
2. Epaileak zaintza eman dion aitarena edo amarena, bereizketa, dibortzio edo ezkontza-baliogabetasunaren kasuetan.
3. Legez guraso-agintea duen tutorearena.

Gauzak horrela, emantzipatu gabe dauden adin txikiko ikasleen kasuetan, beste senide batzuen helbidea ez da eskolatzearen ondorioetarako helbide gisa onartuko, haien odolkidetasuna zein den alde batera utzita.

- Erroldatze-egiaztagiraren helbidea dagokion pertsonaren NANarekin edo AlZarekin bat badator, helbide horri dagokion puntuazioa emango da (5 puntu eragin-eremukoa bada, 2 puntu mugakidea bada eta puntu 1, eskatzailearen familiaren helbidea ikastetxea dagoen udalerrian kokatuta baldin badago), beste tramiterik gabe. Puntuazio hauek ez dira metatuko.

- Erroldatze-egiaztagiraren helbidea dagokion pertsonaren NANarekin edo AlZarekin ez badator bat, erroldatze-egiaztagiraren helbideari dagokion puntuazioa emango da (5 puntu eragin-eremukoa bada, 2 puntu mugakidea bada eta puntu 1 eskatzailearen familia-helbidea ikastetxea dagoen udalerrian kokatuta badago), baina Udalarari eskatu beharko zaio egiaztagiria.

Helbidea egiaztatzeko, EUDELeK eta Hezkuntza Sailburuordetzak izenpetutako informazio-idazki bat jaso dute udalek, ikastetxeek datuak eskatu ahal izango dizkietela aditzera ematen diena. Ikastetxeek adierazten diren agiriak bidali beharko dizkiete udalei, maiatzaren 13a baino lehenago, ikasleen erroldatzea egiaztatu behar den kasuetan. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak posta elektronikoz bidaliko du agiri horiek bideratzeko artxibo informatikoa.



Helbidea egiaztatzeko emaitzak jaso arte, ikastetxeak ontzat emango ditu eskatzaileek emandako datuak, onartutako zerrendak egiteko. Hala ere, egiaztatu ondoren aldaketak egin beharko balira, zuzendu egin beharko litzateke baremazioa.

Egiaztatzeen emaitzak onartutako behin-behineko zerrendak argitara eman ondoren jasotzen badira, ikastetxeak kontuan hartuko ditu behin-behineko zerrenden kontra jarritako helegiteak ebazteko orduan. Egiaztatzeen emaitzak behin-betiko zerrendak argitara eman ondoren jasotzen badira, ikastetxeak horren berri emango dio Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari.

- Erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharrean helbidea eragin-eremuan duen dagokion pertsonaren enpresaren ziurtagiria aurkezten bada, enpresaren helbideari dagokion puntuazioa (2 puntu) emango da. Helbide hau familia-helbidearen alternatiboa da eta, ondorioz, ezin da puntuazioa metatu.

b) Errenta eta adin txikiko anaia-arrebak (3 puntu gehienez).

Familia-unitatearen diru-sarrerengatik ematen den puntuazioa eskuratu ahal izateko, Foru Ogasunari zerga-datuak eskatzeko baimena izenpetu beharko zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Ikastetxekoa ez den lurralde batean bizi diren pertsonak aurkeztu beharko dute errenta-aitorpenaren fotokopia, ez beste inork.

Errentaren atalean puntuatzeko eskubidea izateko, diru-sarrera konputagarriak izango dira familia-unitateko kide guztiek 2007ko zerga-ekitaldian izandako zerga-oinarri orokorrari dagozkionak izan beharko dute diru-sarrera konputagarriek

1,5 puntu emango zaizkie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari haien zerga-datuak egiaztatzeko baimena ematen dioten horiei, datuak Foru Ogasunean behar bezala egiaztatu ondoren.

Errenta egiaztatzeko, behar den artxiboa bidaliko da, maiatzaren 13a baino lehenago, adierazten den Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren posta elektronikoaren helbidera. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak egingo du Ogasunean tramitazioa eta, bidaltzen dizkiguten datuak kontuan hartuta, ikasleari errentarengatik puntuazioa dagokion edo ez jakinaraziko zaio posta elektronikoaren bidez ikastetxeari (ez dira aitorpenaren zenbatekoak adieraziko). Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak artxibo hori posta elektronikoz bidaliko du.



Errenta egiaztatu ondorengo emaitzak jaso bitartean ikastetxeak ontzat emango ditu eskatzaileek emandako datuak, jaso ondoren onartutakoen zerrendak egiteko behar diren aldaketak egin behar badira ere.

Egiaztatzeen emaitzak onartutakoen behin-behineko zerrendak argitara eman ondoren jasotzen badira, ikastetxeak kontuan hartuko ditu behin-behineko zerrendei aurkeztu zaizkien helegiteak ebazteko orduan. Egiaztatzeen emaitzak behin-betiko zerrendak argitara eman ondoren jasotzen badira, ikastetxeak horren berri emango dio Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari.

Edonola ere, diru-sarrerak zein diren alde batera utzita, 0,25 puntu emango dira eskatzailearen adin txikiko anaia/arreba bakoitzeko eta bakoitzaren familia-liburuaren fotokopia aurkeztu beharko da.

c) Ikastetxean edo adskribatutako ikastetxeetan dauden senideak (9 puntu gehienez)

9 puntu emango dira ikastetxean edo adskribatutako ikastetxeetan anaia/arreba bat izateagatik. Adskribatutako ikastetxeen kasuan, ikastetxearen ziurtagiria eman beharko da, familia-liburuaren kopiarekin batera.

Aitak, amak edo tutoreak eskatutako ikastetxean lan egiten badu, 7 puntu emango dira.

d) Beste zirkunstantzia batzuk (6,5 puntu gehienez)

- 2 puntu emango dira ikaslearen elbarritasunarengatik eta puntu 1 haren aita, amaren, tutorearen, edo anaiaren/arrebaren elbarritasunarengatik, behar bezala egiaztatuz gero. Zirkunstantzia hau ezin zaio familiako kide bati baino gehiagori zabaldu.

- Kategoria bereziko familia ugariko: 1,5 puntu; kategoria orokorreko familia ugariko: puntu 1.

- Ikastetxeko OOGk libreki zehaztutako beste zirkunstantzia objektibo batzuegatik: 2 puntu. Zirkunstantzia hauek eskaerak aurkezteko epea hasi aurretik eman beharko dira ikastetxearen iragarki-taulan argitara.

Eskaerarekin batera entregatu beharko da baremoaren atalak egiaztatzeko dokumentazio guztia eta eskaerak onartzeko epea itxi ondoren ezin izango dira agiri berriak onartu.



Baremoaren atalen bat egiaztatzeko dokumentazioa ez ekartzeak atal horren puntuazioari uko egiten zaiola esan nahi du.

Lehen aukera gisa ikastetxean eskainitako eredu eta kurtsuak dituzten eskaerak barematuko dira, ez besterik.

11.- Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrendak.

Onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-behineko zerrendak 2009ko ekainaren 5ean eman beharko dira ikastetxean argitara. Eskatzaileen zerrendan agertzen ez direnak ezin izango dira zerrenda hauetan sartu. Eskaera bat baino gehiago aurkezten duten ikasleak ere zerrenda horietatik kanpo geratuko dira, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esandakoaren arabera.

Eskaerak barematu behar izan ez badira, onartutako behin-behineko zerrendak mailaka eta ereduka agertuko dira, ikasleen datu pertsonalak bakarrik jasoz, ez besterik: ikaslearen izen-deiturak, alfabetikoki ordenatuak.

Eskaerak barematu behar izan badira, ikasle bakoitzak guztira lortutako puntuazioaren arabera ordenatu beharko dira onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen zerrendak, mailaka eta ereduka bereiztuak. Zerrenda horietan, ikasleen datu pertsonalez (izen-deiturak) gain, baremoaren atal bakoitzean lortutako puntuazioak eta guztira lortutako puntuazioak agertu beharko dute.

Ikastetxeko OOGri aurkeztu beharko zaizkio onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak, 2009ko ekainaren 10era arte. Ikastetxeko OOGk berak erreklamazio horiek ebatzi eta behin-betiko zerrendak egin beharko ditu.

12.- Behin-betiko zerrendak

Behin-behineko zerrendei aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, ekainaren 12an argitara eman beharko dira ikastetxean onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-betiko zerrendak. Behin-behineko zerrendei buruzko argibideak behin-betiko zerrendetarako ere dira baliagarri.

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari aurkeztu ahal izango zaizkio behin-betiko zerrenden kontrako gora jotzeko errekurtsuak, 2009ko uztailaren 13ra arte.



Behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, ekainaren 15ean baino lehen, ondorengo agiriak bidali beharko zaizkio Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari:

a) Argitara eman diren onartutako ikasleen behin-betiko zerrenden kopia, mailaka, txandaka, modalitateka eta ereduka bereiztuak, onartutako ikasle horien "2. Lurralde Ordezkaritzarako Alea " orriekin batera.

b) Argitara eman diren kanpoan utzitako ikasleen behin-betiko zerrenden kopia, mailaka, txandaka, modalitateka eta ereduka bereiztuak, kanpoan utzitako ikasle horien "2. Lurralde Ordezkaritzarako Alea " orriekin batera. *Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak eskolatuko ditu ikasle horiek.*

c) Eskaini ez diren hizkuntz ereduetarako jasotako eskaeren behin-betiko zerrenden kopia, kanpoan utzitako ikasle horien "2. Lurralde Ordezkaritzarako Alea " orriekin batera. *Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak ikasle horiek ere eskolatu beharko ditu.*

Zerrendak posta elektronikoz eta arruntaz bidaliko dira. Administrazioarentzako ale gisa adierazitako orriak posta arruntaz bidaliko dira.

Prozesu horiek bukatu ondoren, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak ikastetxean libre geratzen diren plazak eskaini ahal izango dizkie eskatutako ikastetxean plaza lortu ez duten ikasleei eta, horretarako, ahalik eta azkarren deituko ditu Onartze-prozesuaren Berme Batzordeen bilerak.

Une honetan kontuan hartuko dira ikastetxean eskaintzen ez den ereduren baten eskaerak, 1. aukeran eta epean egin badira.

Lehenengo aukeratutako plaza lortu ez duten ikasleei bigarren edo hirugarren aukerako plaza esleitu ahal izango die Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak. Zerrendak lehengo aukera modura hautatutako ikastetxera bidaliko dira, ekainaren 25ean argitara ditzan.

Finkatutako epearen barruan aurkeztutako eskaera guztiei plaza eman ondoren hartuko dira kontuan epez kanpo aurkeztutako eskaerak.



13.- Erlijioa.

Indarreko legeriak xedatutakoaren arabera, ikastetxeek derrigorrean eskaini beharko dute **Erlijioko irakasgaia** eta aukerakoa izango da ikasleentzat.

Hezkuntza-etapa edo maila bakoitzaren hasieran eta ikasleak ikastetxean lehen aldiz izena ematen duenean, adin nagusiko edo emantzipatutako ikasleek ala adin txikiko eta emantzipatugabeko ikasleen gurasoek edo tutoreek, Erlijioko irakaskuntzak ematea nahi dutela eta zein erlijio nahi duten jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendariari.

Arau hauek jasotzen ez duten edozein alderditarako, 1. puntuan ezarritako araudiaren arabera jokatuko da.

Adeitasunez,

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 6a

IKASTETXEEN ZUZENDARIA

Patxi X. Olabarria Furundarena